

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



2024.09.25 Bizkaiko Politika

Orokorreko osoko bilkura

**Jesús Lekerikabeaskoaren hitzaldia,
Euzko Abertzaleak taldeko bozeramailea**

25.09.2024 Pleno de Política

General de Bizkaia

**Intervención de Jesús Lekerikabeaskoa,
portavoz del grupo Euzko Abertzaleak**

Gaur daukagu legegintzaldiko Politika Orokorreko lehen bilkurea, Ahaldun Nagusi Barriaren lehen Politika Orokorreko osokoa. Bistakoa da pertsona bakotxa ezbardina dala, eta gauzak egiteko erak be, ezbardinak dirala. Eskerrak emoten deusudaz, Etxanobe Landajuela Ahaldun Nagusi andrea, nire izenean eta nire talde osoaren izenean, emondako azalpenengaitik eta egiteko moduengaitik.

Gaur egungo errealidadearen ganean egin daben irakurketagaz bat gatoz. Dana ez dago bikain, dana ez dago eginda; baina gauzak objetibotasunez neurtzen badoguz, era garbian neurtzen badogu herritarren bizi kalidadea, hurbileko beste errealidadeakaz zintzotasunez neurtzen bagara, orokorrean ondo edo oso ondo gagozala esan behar dogu. Badagoz txarto dagozan herritarrak, eta horrek egunero euki behar doguz kontutan, eta gure lana eurengana be bideratu behar dogu. Altuago eta sarriago esan geinke, baina argiago ez. Ondo edo oso ondo gagoz, bai; baina gizarteak kezka-sentsazioa dauka eta bere eskari eta exijentzia maila be, altuagoa da gaur egun.

Egunotan baten bateri entzun deusodan moduan, pertsepzinoak be errealidadearen parte dira gaur egun. Tamalez, edo zorionez, ez da nahikoa errealidadea ezagutzeagaz eta konponbideak proposatzeagaz. Konponbide, proiektu eta proposamen onak eta zintzoak izan arren be, ulertzera emon behar dira, eta hori be erronka bat da herrigintzan ari garenontzat, eta egiten jakin eta egin behar dogun beharra da. Nik hori jaso dot gaur Etxanobe andrearen berbetan eta jarreran: erronka barrizatuakaz, erronkei aurre egiteko proposamenak eta jarrera barriak; eta honaino, lehen irakurketea, Ahaldun Nagusiari jagokona. Beste alde batetik, argi dago be, oposizinoko jarreretan ez dagoala ez gauza barririk, ez aldaketarik bere. Seguruenik, normala izango da, zuek be nigaitik bardina esango dozuelako, plenoak joan plenoak etorri, jarrera eta diskurtso bardintsuak dirala.

Baina Ahaldun Nagusia barria dogu, hobia edo ez, denboreak esango dau, baina desberdina bai da. Ahaldun nagusia izendatzeko, hirugarren alderdiagaz legegintzaldi akordioa adostu eta ondoren, besteok bi hilabeteko oporretatik bueltau ginanerako, legegintzaldi osorako programa aurkeztu eben departamentu guztiek. Ondoren, pare bat hiletan, aurrekontuak onartu genduzan ganbara honen %60ko babesa gaindituz. Bien bitartean, proiektu estrategikoak aurrera ataritzen jarraitu dau Aldundiak, Ganbara honetan aurkeztutako Legegintzaldi Programa aurrera eroaten, eta bidean eta eguneroko arduretan, sortzen diran arazo, kezka eta egoera barriei aurre eginez. Horretarako, etenik barik lan eginez.

Baina gaur egun dana ez da lana egitea bakarrik, lan hori zelan egiten dan be garrantzitsua da. Gizarte guztiari entzunez eta bizkaitarregandik hurbil egonda. Herritar guztiek esaten dabena entzun behar

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.

dogu, bai, baina danon nahia ezin da bete, askotan batzuen nahia beste batzuen nahiaren kontra doa; horregaitik danoi entzun eta gero, jagokun arduragaz eta herrigintza eta aberrigintza ikuspegiagaz zintzotasunez jokatzuz, erabagiak hartu eta aurrera eroan behar doguz. Legegintzaldi programari eta akordioari ez deusat gaur barriro helduko. Azaldu zan bere garaian, eta han jasotako proposamenen %98 martxan dagoz gaur egun, urte betera.

Bizkaitarrak entzunda, gaur egun, gizartearen kezka nagusia enplegua da, lanpostua izatea, lanpostuari eustea eta hobetzea da ardua nagusia. Bigarrena, gizartearen zahartzea eta zahartzaroan izango dogun egoerea. Gizartea gero eta zahartuago daukagu, bizi kalidade onak bizi iraupena luzatzen deusku eta hori kudeatzea erronka nagusi bat da. Kezkak jakin badakiguz, horretan danok bat etorriko gara seguruenik, herritarrengandik jasotako datuak diralako. Baina, orain zer? Horren aurrean proposamen eta neurri zehatzak jarri behar doguz martxan.

Lehenengo eta behin, kasu honetan be hurbiltasuna zaindu behar da: 90.000 langile autonomo, saltoki, enpresa txiki, ertain eta handietatik be, hurbil egotea eta entzutea da ezinbesteko eginbeharra. Horren ondoren eta ondorioz, ekintza konkretuak martxan jarri.

Talentua, esate baterako, Bizkaiko Urduliz 42gaz, BFAk 6 milio euroko konpromisoa hartu dau talentue sustatzen daben 16 proiektu zehatzen inguruko jarduerak alkarregaz finantzetako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Deustuko eta Mondragon unibersitadeakaz egindako lankidetzaz-hitzarmenetan jasota dagoana betez.

Ekintzaleak behar doguz, kultura hori bultzatu behar dogu eta ez eskatu eta bultzatu bakarrik, pausua emon gura dabenari lagundu behar deusagu, errekurtsioakaz, tresnakaz; eta hor kokatzen da BAT, Bizkaia Dorrea. Batzuk ez eben uste, baina usteak ustel. Kritika zorrotzak jaso genduzan batzuen aldetik, ohiko burla-tonuagaz beste batzuen aldetik. Andrade jaunak hementxe bertan 'El Farolillo' deitu eban. Bejondeiola Andrade jaunari eta bejondeiola 'farolilloari'! Gaur egun farolillo honek lehen fasea beteta dauka, bigarrena oraintsu zabaldu da eta hirugarrena prestetan dabilz. Gaur egun Bizkaia Dorrean 45 enpresa eta 123 'start up' ari dira alkarlanean, eta hazten jarraituten dau. Apustu arrakastatsua, erabaki ausartak hartzearen ondorio. Arazoa aipatze hutsa edo berba egitea ez dalako nahikoa, apustuak behar diralako.

Enpresa txiki eta ertainekaz lankidetzan aritzea da beste ardatz bat. Bizkaiko lehiakortasun-eredua industrian eta zerbitzu aurreratuetan oinarritzen da eta enpresa txiki eta ertainak dira gure ekonomiaren oinarri nagusia. Bizkaiko Foru Aldundiak, esan dan modura, bultzatu eta laguntzen dau enpresa industrial txiki eta ertainen eta zerbitzu aurreratuen garapena, sektore estrategikoetarako erreferentziatzko zentro eta ekimenetan.

Hor dago AIC, beste apustu arrakastatsua bat, aurrera doana. Zornotzako instalazioetan 1.000 pertsona baino gehiago dagoz 30 enpresetan I+D+i ko proiektuak garatuten. Hori ez da nahikoa, aurrera begira,

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.

azaroan beste EIC bat jarriko da martxan. Hau be kritikauko dau baten batek, hori betikoa da, herri honetan proiektu arrakastatsurik ez dago hasieran kritikak jasoko ez dituenik. EICrako azpiegiturak prest dagoz Abantoko parke teknologikoan trantsizino energetikoari lotutako industria garatuteko, eta horretarako alkarlan publiko-pribadua behar dogu, dagozan enpresa danak eta gehiago behar doguz.

Horreek dira adibide nagusiak, baina beste errealidade bat dago eta guk ez dogu beste aldera begiratuten. Bizkaian badagoz lana topetako benetako arazoak daukiezan pertsonak, eta Aldundia horreetako bakotxagaz dago. Laguntza, orientazioa, prestakuntza eskaintzen da. Gazteentzat, 45 urtetik gorakoentzat, epe luzean langabezian egon diran emakumeentzat, zaurgarritasun-egoeran dagozanentzat... Ekintza zehatz batzuk dagoz, Laborlan, Lanberri edo 3R Empresa... eta urtero laguntzen diren 1.000 mikro-ekimen ekintzaileak, 1.100 lanpostu sortzen dabezanak. Sortzen diranetik hiru urtera, %70ek euren jarduera ekonomikoari eusten jarraituten dabe.

Langabezia %8,6an dago, ez da datu txarra! Baina izen-abizenak daukiezan 47.800 bizkaitarrei datu honek ez deutse balio, ezta proiektu honeek guztiek bere, ziur nago. Baina guk hemen berba egiten dogun bitartean, Aldundiak euren egoera hobetzeko lanean jarraituko dau. Pertsona guztien egoera, bizi diran lekuan bizi dirala.

Beste kontu bat da hori, ondoren azalduko dodana, lurralde eta giza kohesinoa. Kontzeptu hori sarri entzun dogu Ahaldun Nagusien ahotik. Egoera makalean dagozanen lekuan edo gehien sufriduten dauanaren lekuan jarri beharko dira neurri sendoagoak, lehentasunak ezarrita. Hor doguz, fase ezbardinetan, ZAP akronimoagaz ezagututen doguzan Plan Estrategikoak. 3 dagoz martxan, Etxanobe andreak esan dauan moduan.

1. Enkarterri-Ezkerralde-Meatzaldeko plana prozesuan dago. Aldundiak 57 milio inguru inbertidu dauz eskualde horreetan.
2. Ermua eta Mallabia inguruan, Debabarrenako planaren definizioa amaitzen dabilz.
3. Aiarealdean be, guri jagokuzan herrietan, Arakaldo, Arrigorriaga, Urduña eta Orozkon, plan estrategikoa zehaztuten gabilz.

Hiru horreek, esan bezala, fase desbardinetan dagoz, eta laugarren bat be onartuta dago: Busturialdea, biosfera izateak marketan deutson berezitasunegaz. Talde eragilea laster batzeko da; eta Jaurilaritzaren, Aldundiaren eta 20 alkateen alkarlanagaz eta hainbat erakunde eta eragileren parte hartzeagaz, gura badabe, datorren urte hasieran Plana zehaztuta egongo da.

Industria eta zerbitzu aurreratua doguz ekonomiaren oinarri, bai; baina merkataritza eta komertzio txikia eta gertukoa ez doguz ahazten. Eta, batez be, lehen sektoreari, merezidu dauan garrantzia emoten deusagu. Aldundiaren eta sektorearen arteko harremana ona dala esatera ausartzen naz. Ez dot gezurrik esaten aurtan 4 milioi euroko dirulaguntzak helarazoko dirala esaten badot. Hausnarketa partekatue egiten dabilz, alkarrizketa eta hurbiltasun estua dagoz. Alkarrizketa zabala, 100 pertsona, entitate,

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



sindikatu, alkarte, baserritar eta Aldundiko teknikarien artean. Laster hasiko gara lan horren ondorioak ikusten. Zorionak!

Eskualde guztiak, sektore guztiak, pertsona guztiak. Lanean dagozanak, lana bilatzen dabilzanak edo lanerako gaitasunik ez dabenak eta dagoeneko lana eginda, zahartzaro duin bat merezi dabenak, danak euki behar dira kontuan. Horreek be, Aldundiaren ardura nagusienetako bat dira. Bizkaiko Foru Aldundiaren zaintza-ereduaren eta trantsizino-prozesuen barri, danok dogu. Aurrera goaz, eta bidean datoz ondorioak, dagoeneko heldu diranak edo epe laburrean etorriko diranak. 5.000 pertsona euren etxean dagoz etxeTIC laguntza-zerbitzuari esker; laster, 11 etxeTIC zentro izango doguz martxan; 733 pertsona biziko dira bizikidetzaren-unidadeetan; 125 plaza soziosanitario eskura egongo dira; Getxoko Udalagaz alkarlanean, Belaunaldien arteko Zentroak 2025ean, adinekoentzako 100 egoitza-plaza eta gazteentzako 40 zuzkidura-apartamentu eskainiko dauz.

Zerbitzuak hobetzen jarraituten dau BFAk, eta erronka barrietara moldatzen. Gizartearen zahartzea erronka haundia da. Hor kokatzen dogu ezagutzera emon dan zuzendaritza barria. Gizarte ekintzan egiten dan guztia ez dot aitatu, baina bai azpimarratu gura dodaz ezintasuna daben lagunentzat laster eskainiko diran 63 plaza barriak, edo babesgabetasun egoeran dagozan adingabeen zaintza sendotzeko emon diran pausuak. Eta, zelan ez, Bizkaiko Foru Aldundiak, gurera bakarrik datozan adinbako atzerritarraz egiten dabilen lana eta esfortzua, beste askok, beste alde batera begiratzen daben bitartean. Egunen batean, beste ikuspuntu batetik ikusiko dabe batzuk egindako guztia, eta merezi izan dauala konturatuko dira. Kasu honetan be, bizkaitarra izateaz harro!

Hau guztia eta gehiago egiten da, kalidadezko zerbitzua eskaintzeko, zerbitzuak herritarrengana erroteko; eta hemen burura datorkidaz Gertu bulego guztiak, urte gitxitan eskualdez eskualde zabaltzen joan diranak, emoten daben zerbitzua hobetzen jarraituko dabenak, Balmaseda, Bermio, Durango, Gernika, Igorre, Markina-Xemein edo Mungian. Burura datorkidaz be momentu honetan lurralde osoan egiten dabilzan edo egin barri dagozan azpiegiturak.

Handiak, ertainak eta txikiak, herritarren bizi kalidadea hobetzeko, Kukularra, Gurutzeta, Leioako Abanzada Estaltzeko Lanak, Markina-Xemeingo sahiesbidea edo Busturian eta Arteagan egindako lanak. Azpiegitura edo obra honeek, aparte gelditzen jakuzanean, normalean ez doguz estimuan hartzen, baina erabilten doguzanok bai baloretan doguz, eta asko.

Itxasadarraren azpiko tunelagaz be, bardin gertauko da. Laster ekingo deutsie lanari, ekarpen asko eta asko kontutan hartu dira. Baina, lanak hasi orduko, egiten dagozan bitartean eta ondoren be, seguruenik, kontrako ahotsak entzungo dira eta Aldundia, trafiko pribatua bultzatzen dabilela esateko adierazpenak be entzungo doguz, bai. Baina egunero handik pasetan diran 150.000 pertsonari nork eskaintzen deutse zentzuzko alternatiba erreal bat, seguruagoa, jasangarriagoa? Inork bere ez.

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



Berbak beti entzun doguz, bai; baina, beti kontra. Metroaren kontra be bai, asko ziren garai batean eta orain, horreek berberak esaten dabe ibilgailu pribatuen alde gabilzala. Bada, ez da holan; gu pertsonen alde gabilz, arazoak daukezan pertsonen alde gehien bat, dudarik txikienarik barik, eta garraio publikoaren alde bereziki, aspalditik, bai eta momentu honetan bere. Metroko 1.,2.,3.,4. eta 5. lineak, Bizkaiko eskualdeak bata besteagaz lotuz, norabide bietan eta zerbitzu egokia eta berdintsua eskaintzen saiatuz, bizkaitar danentzat.

Enkarterrin pentsatuta, Durangaldean, Arratian, Busturialdean eta Lea-artibain, eskualde guztietan Bizkaibusa, lurralde guztian zehar gero eta zerbitzu hobea eskainiz, nun hobetu badauka, garraio publiko gitxien dauken tokietan sendotu beharko da eta hor dago be, legegintzaldi hasieran onartutako akordioa, esandako bidetik doaz baliabideak eta ahaleginak.

Lurraldeko eremu zehatz batzuetan, beste zerbitzu publiko baten inguruan be, pausu handiak emon dira. Bizikletari buruz nabil, Bizkaibizi proiektua: 41.000 erabiltzaile eta 1,3 milio bidai baino gehiago egin dira, garraio publikoen aldeko apustu garbia da; berbakaz barik, ekintzakaz eta emaitzekaz.

Inor kaltetu barik, ez enpresarik, ez auto gidaririk, ezta proiekturik bere, danak izan behar doguz kontuan, danari entzun, baina erabagiak arduraz hartu eta aurrera egin behar dogu. Interes alderdikoien arabera erabakiak batetik bestera saltoka aldatzen ibili barik egin behar dogu lan. Honeri lotuta, gogoan dodaz hainbat proiekturen inguruan bizi izan doguzan jarrerak. Saihesbideakaz urte askotan, geltoki batzukaz, eta azpiegitura handi eta ertain askogaz. Lehenengo ez esaten eben, gero bai edo alderantziz, lehenengo harantz joateko eta orain honantz. Pertsonak helburu izanda, lurralde ikuspegia, ardura eta kooerentzia horrek dira osagaiak, gauzak egokiro egiten ahalegintzeko.

Hortik aparte, zelan ez, instituzinoetan behar doguz egonkortasuna eta ahalmen ekonomikoa. Gaur egun badogu, ogasun eta fiskalidate on bat daukagulako, egoerara egokitzen joan garealako, beti gehiengo zabal batean oinarrituta eta esperimantu arrarorik egin barik. Populismo merkeetan jausi barik. Eredu onak kopiau behar doguz, txarrak barik, eta gaur egun dogun fiskalitatiari esker gagoz gagozan lekuan. Onartu daiguzan barriak bere, zerbitzuak hobetuteko, enpresak sendotuteko, enpleguari eusteko eta hobetzeko, ingurumenaren alde hobekuntzak lortzeko, eta orokorrean bizi kalidatea hobetzen laguntzeko, balio daian.

BFA zentzu honetan eredugarria da, gure ustez, sistema sendoa daukagulako. Hor dogu errenta kanpaina, apustu fuertea izan zan. Beste apustu arrakastatsu bat! Entzun genduzan barreratik edo gradetatik begira egoten diranen kexa guztiak, 2024ko kanpaina 900.000 zirriborro eginda, 557 milioi euro bueltatu jakez zergadunei, bataz beste, 2 eguneko epe barruan. Heritarrek, ez guk, ez Aldundiek, bizkaitarrek, eurenaganako atentzioagaitik, 9 bat emoten deutse kanpaina honeri. Zorionak! Guk esaten gendun, aktak irakurtzea baino ez dagoala, sistema hau eredu izengo dala urte batzuetan, beste askorentzat, gaur egun errealtate bat da.

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.

Batuz-egaz antzekoa pasauko da. Inork ez dagiola aitzakia arrarorik jarri, sistema honek ahalmentzen dau ogasunak bere lana ondo egitea eta iruzurretan dabilenak gero eta gatxago euki daian gizarteari iruzur egitea. Diru hau zerbitzuetarako dogu, eta instituzinoen finantziazinorako, Udalkutxa barne. Aitatu da, eta izango dogu horretaz jarduteko tartea be, udal finantziazinoa ondo doanean inork ez dauala sistema aitatu bere egiten.

Ez naz gehiago luzatuko, Ahaldun Nagusiak hainbat gauza aitatu deuskuzalako, baina pare bat gauza azpimarratu, bai.

- Ingurumena: pasa dan astean Batzordean diktamena onartu ondoren, laster plenora eroango dogu Hondakinen Planaren onarpena, ibilbide luze eta beharrezko baten ondoren, baina denborarik galdu barik. Lanean be bagabilz Basogintzarako Foru aruaren inguruan.
- Kultura: azpimarratuteko gauza asko, baina esanda dagoz asko. Ikus-Entzunekoek Bizkaian hartu daben indarra eta horrek suposatuko dabena, zentzu askotan, handia da. Zorionak apustu horretan sinestu dabenei eta lanean dabilzan guztiei. Bertoko artistentzat, besteak beste, Rekalde Aretoak eukiko dauan garrantzia, Arte Ederretako Museoa handitzeko lanak, Euskal Museoa handitzeko lanak.

Amaituteko, esku artean daukagu Guggenheim Urdaibai. Benetan sinesten dogu eskualdearentzat eta lurraldearentzat proiektu on bat izango dala, hainbat zentzutuan, ganera. Alkarren artean landu dagigun, azpitik zapaltzen ibili barik. Azaldu, aztertu, ekarpenak egin eta jaso, erabaki eta bete daigun, errespetuz eta garbitasunez jokatuta. Ohituta gagoz olatuen kontra arraunean egiten, eta holan egin behar da. Estropada garrantzitsuetan olatuak beti ez dau laguntzen, norabidie zuzenari eutsi behar jako: adostu, erabaki eta norabideari eutsi. Gogoz arraun eginda, olatuen alde nahiz kontrara.